

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2796

20/2021 DEKRETUA, maiatzaren 5ekoa, lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusia izendatzeko dena.

Lan Harremanen Kontseiluaren otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 13.1 artikulua dioenez, Lehendakariak izendatu eta kenduko du kargutik Kontseiluko idazkari nagusia, Kontseiluko kideei entzun ondoren. artikulua horrek, halaber, ezartzen du bere kargualdiak bost urte iraungo duela eta gehienez beste agintaldi baterako aukeratu ahal izango dela.

Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusiaren agintaldia igarota (otsailaren 20ko 7/2013 Dekretuaren bidez izendatu zen), eta Kontseiluko kideei entzun ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Yolanda Zarandona Gutierrez andrea izendatzea Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusi.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 5ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.